




1. Langabezia

- 1.1. Langabeziaren kontzeptua eta neurketa
- 1.2. Langabezia motak






Lan-merkatuko beste tasa batzuk

Langabezia-tasa: lan egin nahi dutenen ehuneko zenbatek ez duten lanik egiten.

$$\text{Langabezia-tasa} = (\text{LANGABETUAK} / \text{AKTIBOAK}) * 100$$



Lan-merkatuko beste tasa batzuk

- A) **AKTIBITATE TASA edo jarduera-tasa.** Biztanle aktiboek (landunek gehi langabeek) lan egiteko adina duten —16 urtetik gorako— biztanleen multzoa osatzen duten ehunekoa da.

$$\text{Aktibitate - tasa (AT)} = \frac{\text{Biztanle aktiboak}}{\text{Lanerako adina duten biztanleak (16 urtetik gorakoak)}} \times 100$$

Biztanleria aktiboa: lan egiteko **adina** –16 urtetik gorakoak, **gaitasuna** eta **nahia** duten pertsonak osatzen dute.

Lan-merkatuko beste tasa batzuk

- B) **Okupazio-tasa** Landunek lan egiteko adina duten biztanleriaren multzoa osatzen duten ehunekoa da.

$$\text{Okupazio - tasa (OT)} = \frac{\text{Biztanle landunak}}{\text{Lanerako adina duten biztanleak (16 urtetik gorakoak)}} \times 100$$

EAEko lan merkatuko biztanle aktiboak, landunak eta langabeak (milaka lagun)

	1985	1990	1995	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009
Aktiboak	826,6	874,2	936,0	962,0	967,0	983,8	1.001,2	1.009,3	1.002,3	1.001,8	1.010,4	1.025,7	1.035,6
Landunak	652,5	732,6	713,7	830,2	859,2	902,2	915,2	930,7	945,3	961,1	977,4	987,1	951,5
Lehen sektorea	32,9	23,6	24,2	19,0	14,8	16,0	18,9	16,2	11,2	12,6	12,2	12,3	8,9
Industria	266,3	256,2	203,6	244,7	260,6	256,4	252,7	250,8	247,9	246,5	248,9	252,3	225,3
Eraikuntza	37,1	56,4	60,7	70,9	75,9	83,2	87,4	85,9	83,0	84,2	84,6	82,9	77,8
Zerbitzuak	316,2	396,4	425,2	495,6	508,0	546,6	556,1	577,8	603,1	620,7	631,8	639,6	639,4
Langabeak	174,2	141,6	222,3	131,7	107,7	81,6	86,1	78,6	57,1	40,7	32,9	38,6	84,2
Langabezia-tasa (%)	21,1	16,2	23,8	13,7	11,1	8,3	8,6	7,8	5,7	4,0	3,2	3,8	8,1

Iturria: Eustat. Biztanleria Jardueraren Arabera sailkatzeko inkesta.

EAEko jarduera-tasa, landunak eta langabezia-tasa

$$\text{Jarduera-tasa} = \frac{\text{Biztanle aktiboak}}{16 \text{ urtetik gorakoak}} \times 100$$

	2008	2009	2009				2010
			I	II	III	IV	I
Jarduera-tasa	55,3	55,6	55,7	55,3	55,4	55,8	55,5
- Gizonak	64,5	64,0	64,1	63,6	64,0	64,2	63,5
- Emakumeak	46,7	47,6	47,8	47,4	47,3	47,9	47,9
- 16 urtetik 24ra	34,6	32,0	32,8	31,4	31,4	32,5	31,3
- 25 urtetik 44ra	86,5	87,6	88,2	87,5	87,0	87,8	87,2
- 45 urte eta gehiago	37,6	38,1	37,8	37,8	38,3	38,5	38,7
Landunen tasa	53,3	51,0	51,4	50,9	50,8	51,0	50,6
- Gizonak	62,3	58,6	59,2	58,5	58,1	58,6	57,7
- Emakumeak	44,7	43,9	44,0	43,8	43,9	43,9	43,8
- 16 urtetik 24ra	31,2	24,7	26,0	25,0	23,5	24,3	23,6
- 25 urtetik 44ra	82,9	79,8	80,5	79,8	79,6	79,4	78,9
- 45 urte eta gehiago	36,8	36,3	36,2	36,1	36,2	36,6	36,5
Langabezia-tasa	3,8	8,1	7,7	7,8	8,3	8,7	8,9
- Gizonak	3,4	8,4	7,6	8,0	9,1	8,8	9,1
- Emakumeak	4,2	7,8	7,9	7,6	7,2	8,5	8,6
- 16 urtetik 24ra	9,9	23,0	20,8	20,5	25,3	25,4	24,8
- 25 urtetik 44ra	4,1	8,9	8,7	8,7	8,5	9,6	9,6
- 45 urte eta gehiago	2,3	4,8	4,2	4,5	5,5	4,9	5,6

Iturria: BJA (Eustat).

EAEko jarduera-tasa, land

$$\text{Landunen tasa (OT)} = \frac{\text{Biztanle landunak}}{16 \text{ urtetik gorakoak}} \times 100$$

	2008	2009	2009				2010
			I	II	III	IV	
Jarduera-tasa	55,3	55,6	55,7	55,3	55,4	55,8	55,5
- Gizonak	64,5	64,0	64,1	63,6	64,0	64,2	63,5
- Emakumeak	46,7	47,6	47,8	47,4	47,3	47,9	47,9
- 16 urtetik 24ra	34,6	32,0	32,8	31,4	31,4	32,5	31,3
- 25 urtetik 44ra	86,5	87,6	88,2	87,5	87,0	87,8	87,2
- 45 urte eta gehiago	37,6	38,1	37,8	37,8	38,3	38,5	38,7
Landunen tasa	53,3	51,0	51,4	50,9	50,8	51,0	50,6
- Gizonak	62,3	58,6	59,2	58,5	58,1	58,6	57,7
- Emakumeak	44,7	43,9	44,0	43,8	43,9	43,9	43,8
- 16 urtetik 24ra	31,2	24,7	26,0	25,0	23,5	24,3	23,6
- 25 urtetik 44ra	82,9	79,8	80,5	79,8	79,6	79,4	78,9
- 45 urte eta gehiago	36,8	36,3	36,2	36,1	36,2	36,6	36,5
Langabezia-tasa	3,8	8,1	7,7	7,8	8,3	8,7	8,9
- Gizonak	3,4	8,4	7,6	8,0	9,1	8,8	9,1
- Emakumeak	4,2	7,8	7,9	7,6	7,2	8,5	8,6
- 16 urtetik 24ra	9,9	23,0	20,8	20,5	25,3	25,4	24,8
- 25 urtetik 44ra	4,1	8,9	8,7	8,7	8,5	9,6	9,6
- 45 urte eta gehiago	2,3	4,8	4,2	4,5	5,5	4,9	5,6

Iturria: BJA (Eustat).

Langabezia-tasa eragiten duten faktoreak**◆ Langabezia-tasa gehiesten duten faktoreak:****a) Ezkutuko (edo lurrazpiko) ekonomia.**

Kontrol ofizialei ihes egiten duten jarduerak (ogasunari ordaindu beharra saihesten dute eta ez dira estatistiketan agertzen).

Jarduera horietan diharduten pertsonak langabeak direla eta **lan bila dabiltzala** esango dute normalean, beren legez kanpoko egoera ezkutatzeko.

Langabezia-tasa gehiesten eta gutxiesten duten faktoreak

♦ Langabezia-tasa gutxiesten duten faktoreak:

- a) **Desanimatuak** lana aurkitzeko aukera gutxi daudelako lana bilatzeari uzten diotenak dira.
Pertsona horiek ez dira langabeen multzoan ageri, ez-aktiboen multzoan baizik. Hala ere, lan egin nahi luketen pertsonak dira.
- b) **Azpilandunak**. Pertsona horiek aktibotasun eta ez-aktibotasunaren artean daude.
Lana badaukate, baina ez dute *denbora-tarte normal batean* lan egiten, nahiz eta hala egin nahi luketen (eta gai liratekeen).
Estatistiken arabera, pertsona horiek landunen zakuan sartzen dira (nahiz eta, agian, egunean ordubetez soilik lan egin), jardunaldi osoko langileen pare.

Langabezia motak

- ▣ **Langabezia frikzionala.**
- ▣ **Egiturazko langabezia.**
- ▣ **Langabezia ziklikoa**
- ▣ **Langabezia estazionala**

Langabezia motak

- ▣ **Langabezia frikzionala.** Langileen eta lanpostuen arteko egokitzapenak dakarren *garaiaren* eraginez sortzen da.

Lana bilatzen dute ikasketak bukatzen dituztenak, edo
Lana aldatzen dituztenak, edo
Lan hobe bilatzen dutenez gero.

Langabezia mota hau **normaltzat** eta **ezinbestekotzat** har daiteke, merkatu-ekonomiak ongi eta era dinamikoan funtzionatzan duen seinaleztat, alegia.

Langabezia motak

- ▣ **Egiturazko langabezia.**

Egiturazko langabezia lan-eskariaren eta lan-eskaintzaren artean egokitzapenik ez dagoenean gertatzen da; zehazki,

lan-merkatu batzuetan dauden lanpostuak lan egin nahi duten pertsonak baino gutxiago direnean gertatzen da.

Langabezia mota hau eskari-politika hedatzaileen aurrean ez da apenas aldatzen (ez da sentikorra).

Langabezia motak

▣ Langabezia ziklikoa

Ziklo ekonomikoari lotutako langabezia da.

Eskari agregatua enplegu osoko produkzio-mailara (Y_{EO} -ra) iristeko nahikoa ez denean sortzen da.

Atzeraldi ekonomikoei lotutako langabezia da. Gastua eta produkzioa **Y_{EO} -ren azpitik** kokatzen dira.

Krisialdian enpresek lan gutxiago eskatzen dute (langile gutxiago kontratatzen dute, edo zenbait langile kaleratzen dute) eta, jakina, horrek langabezia eragiten du.

Langabezia motak

▣ Langabezia estazionala

Urtaroaren araberako langabezia da. **Klimaren edo urtaro jakin baten menpeko jardueretan** jazotzen da langabezia mota hau.

Urteko garaiekin ezberdinetan lan faktorearen eskaria aldatu egin ohi da, eta horrek garaian garaiko (edo tokian tokiko) langabezia ekar lezake.

Langabezia-tasa, sexuaren eta adinaren arabera

Oro har, emakumeen langabezia-tasa handiagoa da gizonezkoena baino.

Era berean, gazteen (16-24 urte bitartekoen) langabezia-tasa handiagoa da 25-44 urte bitartekoena eta 45 urtetik gorakoena baino.

	Sexuaren arabera		Adinaren arabera			Guztira
	Gizonak	Emakume.	16-24	25-44	45 eta +	
1995	17,5	< 33,0	49,7	> 24,0	> 9,6	23,8
1996	16,2	< 31,5	47,7	> 22,4	> 10,4	22,4
1997	14,9	< 30,3	44,5	> 21,5	> 10,1	21,1
1998	12,0	< 26,5	36,8	> 18,2	> 8,7	17,8
1999	10,6	< 22,7	32,6	> 16,1	> 6,8	15,5
2000	9,5	< 19,9	29,6	> 13,9	> 6,6	13,7
2001	7,5	< 16,5	25,5	> 11,1	> 6,3	11,1
2002	5,7	< 12,1	19,5	> 8,6	> 4,3	8,3
2003	6,5	< 11,5	22,2	> 9,2	> 3,6	8,6
2004	6,5	< 9,6	20,5	> 8,1	> 3,9	7,8
2005	4,7	< 7,0	13,5	> 6,4	> 2,9	5,7
2006	3,7	< 4,5	8,1	> 4,7	> 2,2	4,1
2007	3,0	< 3,6	7,6	> 3,7	> 1,9	3,3
2008	3,4	< 4,2	9,9	> 4,1	> 2,2	3,8
2009	8,4	> 7,8	22,9	> 8,9	> 4,9	8,1

Zer egin daiteke langabezia murrizteko?

Epe laburrean,

langabezia murrizteko, ezinbestekoa da produkzio-maila errealak modu jarraian gora egitea denboran zehar (**Y**↑), enpresarien konfiantza piztea, lanpostuak sor eta eskain ditzaten (**L**↑).

Ziklo ekonomikoaren atzeraldiak ekiditea da helburua, langabezia ziklikoan izango luketen eragin kaltegarria saihesteko; horretarako,

eskari-politika (diru-politika zein zerga-politika) hedatzaileak abian jarri eta lan kostuak apal mantendu beharko lirateke.

Zer egin daiteke langabezia murrizteko?

Epe erdi eta luzean,

egiturazko langabezia beheartzeko eskaintza-politikak behar dira:

- 1. Lan-merkatuko doikuntza-mekanismoak malgutzea:** batez ere, kontratatze (aldi baterako lana, arduraldi partziala edo zatikako lanaldia, prestakuntza edo praktiketakoa, eta abar).

Bestalde, soldaten bilakaera produktibitatearen eta sektore desberdinetako emaitzen arabera negoziatu behar da, inor lanetik botatzeko kostuak jaitsi, eta zeharkako soldata-kostuak murriztu (enpresek gizarte segurantzari ordaintzen dizkioten kuotak txikitu, etab.).

- 2. Enplegu-politikak,** langabeek lanpostu bat aurkitzeko aukera gehiago eta hobeak izan ditzaten:

autoenplegurako laguntzak ematea;
 enplegu publikoa sustatzea;
 finantza-laguntzak eta pizgarri fiskalak eskaintzea;
 lanbide heziketaren sistema hobetzea;
 lanarekin lotutako informazio-, aholkularitza- eta kolokazio-zerbitzuak indartzea,...